

# ¡ONGI ETORRI!

(DISCURSO DE BIENVENIDA DIRIGIDO Á LA EXCMA. DIPUTACIÓN  
Y LEIDO POR LA NIÑA CONCEPCIÓN IRIZAR)

¡Izan zaitetze ongi etorriyak. Jaunak! ¡ez! iruditutzen-zait obia, ederragua eta batez ere gozoagua, dala izen pozkidaz betian jaita! Aitak zerate bada errikuak eta orrengatichek esango det: Ongi etorriyak zubekiñ datozen danak, Aloñamendiko oñean dagon erri politone-tara; naiz egon urruti Donosti eder eta Tolosa erri chit langilletik; ala ere, zeok ikusiko dezuten bezela, agertuko dituzute gauzak, erri eder oyetan beziñ onak, eta batez ere; igarriko dezute nola bere usariyuak diran, lengo gure guraso zar (chitonak berenakiñ, baña bildur-garriak erbestekuentzat) izan ziran ayenak bezelakuak.

Eta ¡aitamaitiak! ¿zer iruditzen zaitzute nik alaiturik esanagatik gure Oñatiko usariyuak dirala lengo euskaldun zar, zeñen kopeta beti garbi azaltzen zan, ayenak bezelakuak edo ayek berak?

¿Ezdet esan etorri zeratela Aloña mendiko aldapeko zelayetan dagon erri polit onetara? Orañ: ¿zer galdetu biarra daukat nik neronek baño obeto dakizuten gauza?

¿Aloñapian bagaudegu! ¿zeñ daukagu Aloña gañeko niendi be-dinkatu ortan?

¡¡Ama!! ama!! ama zubena! ¡ama guria! ama danona! Ama zeñen semia dan mendi eta basamortuko osto guztiyen Jabea; eta alare, Ama euskaldunena dago arantzaren gañean; ori dago, Aloñamendiko arkaitzetako sasi tarteko arantzea baten gañean. ¡Arantzan zuko Ama Birji-ña! Orrengatik berriz ere alaiturik esango det, etorri zeratela erri batera zeñen usariyuak diran zarrak eta onak, eskerrak arantzaren gañian dagon Ama Birjiñari.

Biarrak indar aundiya du, eta biarra da neretzat nere maestra maitiak agintzen diran gauza guztiya.

Biar orrek jarri nau leku onetan zuberi ongi etorri bat emateko

Ongi etorriyak bada erriko aitak: ongi etorriyak erriko agintari guztiyak eta ongi etorriyak zubek ere danak, erriyaren onerako, lannian zabilzatenak.

ESAN DET.